


Erlantz Furundarena Agirre

F maila • 2 saria

Erlantz Furundarena Agirre naiz eta Araman jaio banintzen ere, oso txikitan etorri nintzen Beasaina. Andramendi Ikastolan 4.mailan nago eta oso pozik jaso dut saria.

Asko gustatzen zait, musika, lagunekin egotea eta irakurtzea, batez ere abentura liburuak. Perkusioa ikasten ari naiz eta lagunekin musika talde bat sortu dugu, Otso Beltzak izenarekin.



KALIFAREN SUGARRA

Quea izeneko erresuma handi batean, Kalifa izeneko printzesa bat bizi zen. Ile ilun luzea zuen, begi gorriak eta gorputza armaduraz estalia, oinetako gorri eta beltzak, eta buruan kasko bat.

Kalifaren erresuman guztiek ahalmen berezi bat zuten, eskuetatik sua botatzeko gai ziren, Kalifak ordea ez zuen gaitasun hori garatu.

Kalifaren gurasoak, erresumako errege-erreginak ziren, eta ez nola nahikoak. Gaiztoak ziren, ez zuten ezer onik buruan. Erresumako soldaduekin, armada bat osatu eta mundua konkistatu nahi zuten, baina Kalifa ez zegoen ados eta gurasoak geldiarazten saiatu zen. Bide desberdinetatik saiatu zen aita-amak gelditzen, baina ez zuen inoiz lortzen. Geldiarazteko saiakeran horrenbeste denbora pasatu ondoren, etxetik ihes egitea erabaki zuen.

Erresumatik atera eta, egunak joan egunak etorri, nora ezean ibili zen, baina, ez zuen Quea erresumaz kanpoko tokirik ezagutzen. Bidean ahots batzuk entzun zituen eta hauei jarraituz, herri koxkor batera heldu zen. Festan zebiltzan herritarrek eta gizonezko bat hurbildu eta galdetu zion:

-Nor zara? Eta zer egiten duzu hemen?

-Kalifa naiz. Nire etxetik alde egin dut, gurasoekin haserretu naiz.

-Ondo da, nire etxean lotan gelditu nahi al duzu?

-Ados, eskerrik asko.

-Gaur neguko jaia ospatzen ari gara. Gurekin geratu nahi duzu?- galdetu zion gizonezkoak.

-Eskerrik asko, baina oso nekatuta nago. Nahiago nuke etxeko bidea erakutsiko bazenit.

Kalifa ohera joan zen eta hurrengo goizean goiz erosketak egitera joan zen gizonarekin batera. Herriko azokan zebilela, mutiko bat ikusi zuen azokara sartzen, ezaguna zen, Kizen zuen izena eta Quea Erresumako laguna zuen. Kalifak ikusi zuenean, berarengana gerturatu eta bere gurasoei ezer ez esateko eskatu zion. Ihesi joan zela, haserre zegoelako eta bere gurasoen

PROSA

gerrako erabakia ez zitzaiolako batere ondo iruditzen. Kiezenek, bera ere ez zegoela konforme esan zion, aita armadan sartu zutela eta ihesi alde egin zuela erresumatik.

Kizenek suaren ahalmena zuen, eta oso ongi menperatzen zuen gainera. Nahi izanez gero, erakutsiko ziola esan zion eta horrela elkarrekin entrenatzen hasi ziren. Bi aste beranduago Kalifak, orduak eta orduak entrenatzen pasatu ondoren, sugar apur bat bota zuen eta saltoka eta brinkoka hasi zen pozaren pozez Hala ere, Kizenek esan zion, oraindik ere gurasoen aurrean jartzeko gehixeago entrenatu beharra zeukala eta horretantxe jarri zen buru-belarri.

Hilabetera, Kalifak bere burua prest ikusi zuen gurasoengana joateko. Erresumara iritsi zirenean armada bertatik ateratzeko prest zegoen, lur berrien konkistan hasteko. Kalifa eta Kizen lasterka gurasoen aurrera joan ziren eta dena gelditzeko eskatu zien Kalifak gurasoei.

Gurasoak harrituta geratu ziren, ez zuten euren alaba gehiago ikustea espero. Kalifak eskuak gorputzaren aurrean jarri eta suzko bola bat sortu zuen. Gurasoak zur eta lur geratu ziren begira, ez zuten beren alabaren ahalmen hori sekula ikusi. Kalifaren sugarra, gero eta handiagoa zen eta haren berotasuna gero eta gehiago somatzen zuten.

Armadako soldaduak berehala korrika ezkutatu ziren euren etxeetan eta Kalifaren gurasoek berriz, nabari zuten indarrarekin izututa, atzeraka urruntzen hasi ziren gazteluan ezkutatzeko asmoz. Kalifak, hori ikusita, ez zuela borrokarik nahi esan zien, eta erresuma zaindu eta denak zoriontsu izatea nahi zuela. Lur gehiago izateak ez zituela zoriontsuago egingo.

Kalifaren gurasoak, alabak esandakoak entzunda berarengana hurbildu eta besarkada handi bat eman zioten. Elkar besarkatuta, Kalifaren sugarraren indarrarekin eta sortutako berotasunarekin, erresuma alai eta goxo bat osatu zuten. Kalifak, bere lagun Kizenekin batera bidaia bati ekin zion mundua ezagutzeko asmoz.